

II.—Ormaetxea jaunak ez du alperikako lanik egin *Erizkizundi-Irukoitza*'n. Euskaltzaindiak agindurik, Bizkai'ko eñirik-eñi ibili da ta berak kutunkiro jaso ditu eñiak eman dizkion euskal-itz eta aditzaren aldakuntzak. Baita ere ekañi dizkigu aldakuntza oyen tar-te gutxineko gora-berak ta abetan bere iritxiz berdintasun batera ezez eldu leike.

III.—Eguskitza jaunak irakuñi dizkigu aditzaren sustar-mota batzuek ta oyetatik gutxi-gora-berako aditzaren lenengo arpegialdiak.

IV.—Irakuñi dizkigu ere Azkue jaunak euskal-*eufemismoak* ta Bonaparte jaunaren eskutitzen ageri batzuek.

V.—Badaki Euskaltzaindiak Eusko-lkaskuntza eta Euskal-Esnalea alegiñetan dabiltzala Karmelo Etxegarai euskaltzain maite zanaren jayotetxean alako oroiañi bat jartzeko. Euskaltzaindia oyekin batera di-joa ta gogoz batutzen zaye oroipen ofen edozer gertapenerako.

VI.—Rosario de Santa Fe'ko (Amerikan) Eusko-Etxeko Zuzen-Batzañaren ezkutitz bat irakuñi da. Gure lanetan bat egin nai luke ta sorospidetxo bat bialtzen digu. Eñkeñak.

Ta beste gairik izan ez-ta' araudi-otoitzez amañtu da batzañaldi au.

---

## Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Ilbeltza'ren 28'an.

Euskaltzain abek batzañera datoz: Azkue, Kampion, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe, eta Muxika ta Garitaonandia euskaltzain-ordekoak.

I.—Azkue jaunak dio: Alfredo Trombetti izkunle bikañari bere Morfologia biali diola ta onek berari erantzupenez igofi dion eskutitza irakuri digu.

Euskaltzaindiak nai lituzke Trombetti jaunak argitaratu dituen liburuak ta idatzi bear zayo gure gutun-tegirako biali ditzala.

II.—Lakonbe jaunak Bonaparte'ren eskutitzetatik artutako lan bat irakuri digu. Lan orek gai oni dañakio: *Permutación de las vocales*.

III.—Azkue jaunak irakuri digu: *Apéndice a la Morfología = conjugación familiar vizcaina*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta otoi-tzez amaitu da batzaraldia.

---

## Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Ilbeltza'ren 29'an.

Batzar ontara aurreko agirian aipatzen diran euskaltzain berak datoz eta baita ere ordekoak.

I.—Etxegarai Karmelo euskaltzain zanaren utsa bete bear litzake, araudiak agintzen duanez. Igaro dira iragari-aroaren bi ilabeteak ta Euskaltzaindiak, bitarte ortan, ez du inoren eskabiderik artu.

Orain ordea Azkue jaunak, Urkijo ta Landeretxe laguntzaile dituela, idazki motx baten bitartez, BONIFACIO ETXEGARAI dakar, bere anai zanaren orderako.

Olabide euskaltzain jaunak, ara zer dion Euskaltzaindiari. «*En las condiciones de falta de libertad con que se procede a la elección, el que suscribe juzga que no puede contribuir a ella, prescindiendo de los méritos y simpatías que para el mismo tengan los que sean votados.-Raimundo Olabide, S. J.*»